

**EUSKO JAURLARITZAREN XII. LEGEALDIKO OSAERA****SEGURTASUNA ETA LEHENENGO LEHENDAKARIORDEA**

Josu Erkoreka Gervasio
Bermeo, 1960.

Zuzenbidean lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean.
Zuzenbidean doktorea UPV/EHUUn (1990).
Deustuko Unibertsitateko Administrazio Zuzenbideko irakaslea.
UPV/EHUko eta Praktika Juridikorako Eskolako irakaslea.
Eusko Jaurlaritzako Araubide Juridikoaren Sailburuordetzako abokatua (1991).
HAEE-IVAPeko idazkari nagusia (1990).
HAEE-IVAPeko zuzendaria (1995).
EAJ-PNVren Bizkaiko diputatua Diputatuen Kongresuan (2000-2012).
Euskal Taldearen bozeramailea Diputatuen Kongresuan.
Eusko Jaurlaritzaren X. legealdiko Herri Administrazio eta Justiziako sailburua eta Gobernuaren bozeramailea (2012-2016).
Eusko Jaurlaritzaren XI. Legealdiko Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua eta Gobernuaren bozeramailea (2016-2020).

LANA ETA ENPLEGUA ETA BIGARREN LEHENDAKARIORDEA

Idoia Mendia.
Bilbao, 1965.

Zuzenbidean lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean.
Amsterdameko Unibertsitatean nazioarteko eta europar harremanen graduatu ondokoa (1991-1992).
Abokatu lanak bere bufetean (1994).
PSE-EEko zuzendaritzako kidea (2000-2002).
2002. urtetik legebiltzarkidea Eusko Legebiltzarrean.
Barrikako zinegotzia (2003-2009).
Eusko Jaurlaritzaren IX. Legealdian Bozeramaile eta Justizia eta Herri administrazioiko sailburua (2009-2012).
Eusko Jaurlaritzaren IX. Legealdian Bozeramaile eta Justizia eta Herri administrazio eta Segurtasun sailburua (2012ko abuztutik 2012ko abendura).
2014ko irailetik Euskal Sozialisten idazkari nagusia.

GOBERNANTZA ETA AUTOGOBERNUA

Olatz Garamendi Landa
Ea, 1968.

Zuzenbidean lizentziatua, Deustuko Unibertsitatean
Karrerako funtzionarioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio zuzenbidean lizentziatuen goi-mailako kidegoan.
Lege Aholkularia. Eusko Jaurlaritza. (1993-2006)
Lege Aholkularitza atalaren arduradun. Eusko Jaurlaritza (2006-2009)
Azpiegitura eta Kontratazioen kudeatzaileordea, UPV/EHUUn (2009-2012)
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean. (2012ko abendutik gaur egun arte).

EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA

Arantxa Tapia Otaegi

Donostia/San Sebastian, 1963.

Industria-ingeniaria. Elektrizitate-espezialitatea.

Cum Laude doktoregoa Nafarroako Unibertsitatean (1992).

Nafarroako Unibertsitateko Ingeniaritza Eskolako irakaslea (1987-1992).

UPV/EHUko Unibertsitate Eskolako katedraduna (1995-2005).

“Invited Lecturer” (irakasle gonbidatua) hiru urtez Massachusettseko MITen.

Ikerketa-lanak garatu ditu, besteak beste, Iberdrola, Indar, Lasa eta Eustek, Gikesa, LAPTON eta JEMA enpresentzat.

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lanetako sailburuordea (2005-2007).

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuko foru-diputatua.

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Berrikuntza Batzordeko burua.

EAJ-PNVren diputatua Diputatuen Kongresuan (2011). Bozeramailea batzorde hauetan: Ekonomia eta Lehiakortasuna, Sustapena, Defentsa, Hezkuntza eta Kirola, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumena eta Desgaitasuneko Politika Integralak.

Eusko Jaurlaritzaren X. legealdiko Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua (2012-2016).

Eusko Jaurlaritzaren XI. legealdiko Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituretako sailburua (2016-2020).

EKONOMIA ETA OGASUNA

Pedro Azpiazu Uriarte

Bilbao, 1957.

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna (ekonomiaren atala). Eskualdeko eta hiriko ekonomiaren espezialitatea.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Programazioko zuzendaria (1989).

Ekonomia eta Plangintzako zuzendaria. Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saila (1993).

Eusko Jaurlaritzako lehendakariordearen ekonomia-aholkularia (zuzendari-kategoria) (1995).

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Programazioko zuzendaria (1995).

Bizkaiko Foru Aldundiko Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusia (1995).

EAJ-PNVren Bizkaiko diputatua Diputatuen Kongresuan (2000).

EAJ-PNV Parlamentuko Euskal Taldearen bozeramaile ondokoa Diputatuen Kongresuan (2012).

EAJ-PNV Parlamentuko Euskal Taldearen bozeramaile ondokoa Diputatuen Kongresuan. Bizkaiko diputatua. Bozeramailea Diputatuen Kongresuan Ekonomia eta Ogasun Batzordean, Aurrekontu Batzordean, Industria, Turismo eta Merkataritza Batzordean eta Kontuen Auzitegiarekiko Harremanetarako Batzorde Mistoan (2016).

Eusko Jaurlaritzaren XI. legealdiko Ogasun eta Ekonomiako sailburua (2016-2020).

OSASUNA

Gotzone Sagardui Goikoetxea
Bilbao, 1966.

Medikuntzan lizentziatua UPV/EHU. n.
Unibertsitate Kudeaketako Nazioarteko Masterra eta Laneko Arriskuen
Prebentzioko goi-mailako teknikariaren Masterra.
UPV/EHUko karrerako funtzionarioa.
IFASEk Leioan duen zentroko asistentzia-arduraduna.
Lanbideko Lan Aktibaziorako zuzendaria (2012-2016).
Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkidea 2016tik.
Garapen Ekonomikoko eta Gobernu Oneko zinegotzia Bilboko Udalean 2017tik.

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK

Iñaki Arriola López
Eibar, 1959.

Zuzenbidean lizentziaduna Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU,
Gipuzkoa).
PSE-EEko zinegotzia Eibarren (1983-1993).
Eusko legebiltzarkidea (1991-1993).
Eibarko alkatea (1993-2009).
"Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak" Batzarkide Taldearen bozeramailea.
Gipuzkoako Batzar Nagusietako hainbat batzordetako bokala.
Patxi López lehendakari izan zuen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan
eta Garraioetako sailburua (2009-2012).
Gipuzkoako PSE-EEren idazkari nagusia, Euskadiko Batzorde Exekutiboko
kidea eta Eibarko herri-elkartearen burua 2016 arte.
Eusko Jaurlaritzaren XI. legealdiko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta
Etxebizitzako sailburua (2016-2020).

HEZKUNTZA

Jokin Bildarratz Sorron
Tolosa, 1963.

Irakaskuntzan diplomatua.
Zientzia Politiko eta Soziologian (UNED) lizentziatua, eta Europako Batasuneko
Batasun Ekonomiko eta Bateratze Politikoan masterduna (EHU).
Anoetako ikastolan irakasle eta zuzendaria (1986-1991), baita Legazpiko
Haztegi ikastolako gerente ere (1991-1994).
EiTBko Saio Berezi eta Marketineko arduraduna (1997-2001).
Senataria (2001-2004).
Tolosako alkatea (2003-2011). 1995tik 2003 Tolosan Zinegotzi izandakoa.
EUDELeke presidente (2007-2011).
Europako Udal eta Erregioen Kontseiluko kide eta Botere Lokal eta
Erregioetako Kontseilu Orokorreko kide (2007-2011).
Senatari autonomikoa (2013tik gaur egun arte).

KULTURA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA BOZERAMAILEA

Bingen Zupiria Gorostidi
Hernani, 1961.

Filosofia eta Letretan lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean, Euskal Filologiako espezialitatean.
Mondragon Unibertsitateko MBA masterra (2002, Otalora Institutua, MCC)
Kooperatiba Enpresen Zuzendaritza.
UPV/EHUko Komunikazio Korporatiboko Masterreko irakaslea.
ETBko albistegietako editorea.
Eusko Jaurlaritzako Prentsa Bulegoko zuzendaria eta Lehendakartzako komunikazio-arduraduna lehendakari José Antonio Ardanzarekin. (1989-1999).
ETBko zuzendaria (1999-2009).
Deia egunkariko zuzendaria (2012-2016)-
Eusko Jaurlaritzaren XI. legealdiko Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua (2016-2020).

BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK

Beatriz Artolazabal Albeniz
Vitoria-Gasteiz, 1970.

Ekonomia eta Enpresa Zientzietan lizentziaduna, ekonomiaren atalean, nazioarteko ekonomiaren eta garapenaren espezialitatean, UPV/EHUn.
Ekonomiaren eta osasunaren kudeaketarekin erlazionatutako hainbat ikastaro egin ditu.
EAJ-PNVko zinegotzia Vitoria-Gasteizko Udalean (2000-2007), honako eginkizun hauek betez: Ogasun Batzorde eta Kontuetarako Batzorde Bereziko burua, eta bozeramailea Gizarte Gaien Batzordean, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Batzordean, eta Hirugarren Adinekoen Kontseiluan eta Irisgarritasunerako Kontseiluan. Vitoria-Gasteizko Udalaren ordezkaria Adingabearen Kontseiluan eta bokala Kontratazio Mahaian eta Funtzio Publikoaren Batzordean.
Hainbat lan egin ditu GIZAKER, SL, GUASCOR I+D, ASTILAN-GRUPO SORMEN eta LOGIC CONTROL, SA enpresetan (1996-2000).
Vitoria-Gasteizko Santiago Ospitaleko ekonomia- eta finantza-zuzendaria (2008-2011).
Antolakuntza-aholkularia (2011-2013).
ABBko burukidea (2012-2013).
Osakidetzako ekonomia- eta finantza-zuzendaria (2013-2015).
Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Saileko foru-diputatua. (2015-2016).
Eusko Jaurlaritzaren XI. legealdiko Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua (2016-2020).

TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA

Javier Hurtado Domínguez,
Madril, 1981.

Zuzenbidean eta Zientzia Politikoetan lizentziaduna Madrilgo Unibertsitate Autonomoan.

Zuzendaritza Federaleko Antolakuntza Idazkaritzako koordinatzailea izan zen eta hurrengo urteetan alderdiko hauteskunde-batzordeetan parte hartu zuen. Sustapen Ministerioko Kabineteko zuzendaria (2009-2011).

Norberaren konturako abokazian aritzea, Vitoria-Gasteizko bulego batekin lankidetzan (2012-2019). Plangintza estrategikoaren eta krisi-kudeaketaren aholkularitzan espezializatzen da, bai eta zuzenbide administratibo eta zibilaren arloko abokatutzan ere .

Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura eta Mugikortasuneko foru diputatua (2019ko uztailetik gaur egun arte).